

«BAGARA. COMUNIDAD
ACOGEDORA E INCLUSIVA»



«BAGARA. COMUNIDAD
ACOGEDORA E INCLUSIVA»

2023.EKO URRIAREN 1A

1 DE OCTUBRE DE 2023

**URTEAN ZEHARREKO 26.
DOMEKA (A)**

**DOMINGO 26 DEL
TIEMPO ORDINARIO (A)**

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- Lagungarriok liturgiaren sustapenerako taldearen esku iztea komeni da.
- Egokia litzateke parrokiako Caritaseko taldeak ospakizunean eraginkortasunez esku-hartzea.
- Lagungarriok alde zuzenetik prestatu dira. Beraz, kanpaina ospatzen danean, Jainkoaren herriaren otoitzean jaso beharke geunkezan gertaerak izan daitezke.
- Kanpainaren nondik norakoak ulertzeko ezinbestekoa da liturgia lagungarriak batera biltzen diren materialak irakurtea.

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- Conviene pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.
- También conviene la participación activa de la Caritas parroquial en la celebración.
- Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.
- La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es necesaria para comprender el sentido de la Campaña.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Gure fedea bizi eta ospatu egin gura dogu, erosotasunetik ihes egin eta Jainkoaren eta gure arteko hartu-emonak gure bizitzan eragina izan daiala bilatuz; izan be, askotan, fedea ohitura huts bihurtu daiteke.

Asteburu honetan, pastoral kurtso barriari hasiera emoten dihardugu, Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmoaren haritik. Domeka honetan, Caritasen eta kristau alkartearen aldeko baterako kanpainan, 'bagara', alarte abegitsu eta barneratzaile gara aldarrikatu gura dogu. Holan, Jesus Jaunaren lekukotasuna emongo dogu, beragaz gagozalako. Etxe berean, guztion lur, lur anitz eta askotariko eta besoak zabalik hartzen gaituan lur dan planetan, bizi dan giza familia bera gara. Horregaitik, mundu osoko familia horretako kide izanda ospatu gura dogu kurtso hasierako kanpaina hau, Frantzisko Aita Santuak "abian dan Eleiza" izatera egiten deuskun deia gogora ekarriz.

Zutik, abestuz ekingo deutsagu Eukaristiari.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Celebramos nuestra fe porque no queremos instalarnos cómodamente en ella sin que nuestra vida se vea afectada lo más mínimo por nuestra relación con Dios. La fe, en muchas ocasiones, puede quedar convertida en una costumbre.

Este fin de semana estamos dando comienzo al nuevo curso pastoral en el marco del Plan Diocesano de Evangelización. Este domingo, la Campaña conjunta de Caritas y comunidad cristiana nos invita a ser comunidades acogedoras e inclusivas. Así daremos testimonio del Señor Jesús porque estamos con él. Somos una misma familia humana viviendo en la misma casa, un planeta que es tierra común, plural y diversa que nos acoge con brazos de hogar. Por eso, queremos celebrar desde esa familia universal esta campaña de inicio de curso, recordando la llamada del Papa Francisco a ser una "Iglesia en salida".

Iniciamos la eucaristía, puestos de pie y cantando unidos.

ABESTIA ETA SARRERAKO PROZESINOA

ABADEAREN AGURRA

Jainko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea, zuekin.

DAMU OTOITZA

Ospakizunaren hasieran, bihotz-barritzeko eskatuko deusagu Jainkoari. (Isilunea)

- Gure bihotz-barritzearen zain zagozana: **Erruki, Jauna.**
- Zure parkamena eta indarra emoten deuskuzuzana: **Kristo, erruki.**
- Zeure Hitzaren bidez bizira garoazuzana: **Erruki, Jauna.**

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (EZ 18, 25-28)

Lehenengo irakurgaiari, biziaren inguruko hausnarketa egiten dau Ezekiel profetak, zuzenaren eta gaiztoaren jokaerak aurrez aurre jarritz. Jainkoaren ontasun eta parkamenean uste osoa izateko dino.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (FLP 2, 1-11)

Bigarren irakurgaiari, Paulo apostoluak dei egiten deutso Filiposeko alkarteari euren artean Kristoren sentipen berak izan daiezan, maitasun eta uste berean bat eginda eta ados iraunez.

HOMILIARAKO IDEIAK

Behin baten, kristau ez ziran Palestinako nekazari batzuei irakurri eutsien parabola hau eta, ondoren, seme bietatik zeinek jokatu eban zuzen galdetu. Aitari baietz esan eutsan semeak jokatu ebalako ondo esan eban guztiek, nahiz eta gero mahastira ez joan, ezetz esan eutsanak ez eban-eta aitaren esana egin eta aitak semearen gainean ez ebalako inongo ahalmenik pentsatuko eban auzotarrek, hau da, aita ez zala bape ohoragarri. Parabola hau jesusen ahotik entzun ebanentzat, beraz, aitari "ezetz" esateko ausardia izan eban semeak erakutsitako lotsagabekeria da aitagarriena.

CANTO Y PROCESIÓN DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

La gracia y la paz de parte de Dios, nuestro Padre, y de Jesucristo, el Señor, estén con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

Al comenzar esta celebración, pidamos a Dios que nos conceda la conversión de nuestros corazones. (Instantes de silencio)

- Tú, que esperas que nos convirtamos: **Señor, ten piedad.**
- Tú, que nos das tu perdón y tu fuerza: **Cristo, ten piedad.**
- Tú, que, con tu palabra, nos conduces a la vida: **Señor, ten piedad.**

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA (EZ 18,25-28)

En la primera lectura, el profeta Ezequiel realiza una reflexión sobre la vida misma y compara la conducta del justo y del malvado. Invita a confiar en la bondad y en el perdón de Dios.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA (FLP 2,1-11)

En la segunda lectura, el apóstol Pablo exhorta a su comunidad de Filipos, a tener entre ellos los mismos sentimientos de Cristo, manteniéndose unánimes y concordes con un mismo amor y un mismo sentir.

IDEAS PARA LA HOMILÍA

En cierta ocasión les leyeron esta parábola a unos campesinos de Palestina que no eran cristianos y se les preguntó a ver cuál de los dos hijos actuó bien. Todos respondieron que aquel que le había dicho que sí al padre, aunque después no fuese a la viña, porque el que le había dicho que no lo había desobedecido y los vecinos pensarían que el padre no tenía autoridad sobre su hijo y, por lo tanto, era poco honorable. Esto nos hace pensar que para aquellos que escucharon de labios de Jesús esta parábola, lo más reseñable era la poca vergüenza que había demostrado aquel hijo que se atrevió a decir "no" a su padre.

Jesusek beste ikuspuntu bat emon gura deutse, eta galdera ez da, gizarte arauen arabera, zeinek jokatu eban zuzen, aitzak gura ebana zeinek egin eban baino. Itxurek ez ezik, barruko jarrerak dauala benetako garrantzia esan gura da: Jainkoa goresteko ez da nahiko kanpoko ohikuneak betetea, ezinbestekoa da bere borondatea betetea be.

Aldatzeko asmoa, behin eta barriz erakutsi arren, berez ez dala bihurtzea, aldatzea esan gura deusku gaur Jesusek. Ez da nahiko "bai, banoa" esatea, joan egin behar da. Jainkoak beti izten dau tartea berbaz esaten dan "bai" hori egintzen bidez gauzatzen dan "bai" izan daiten. Kristau izateko ez da nahiko bai esan eta fedea berrestea, ezinbesteko da-eta berrespen hori eta jarduera bat etortea, gure hitzen eta ekintzen arduradun izatea, Kristoren atzetik jarraitzea, lauan eta aldapa gora.

Gure eguneroko bizitzan, balio ebanjelikoak hedatuta egotea gura dogu, Paulok bigarren irakurgaiaren eskatu deuskuna nagusitu daitela: «ez nork bere onari bakarrik begiratu, besteena be bilatu baino». Begiratu deiogun kurtso hasierako kartelari: askotariko pertsonak ikusten dira, eta askotariko kolorez osatutako arrosa-leihoak; bata zein bestea, kolore eta era askotako osagaiez beteta dago. Pertsonak alkarri sorbaldatik lotuta dagoz; inor ez dago bakarrik, itxita. Gure izaeraren oinarria, besteakazko hartu-emon da. Bidera urteteko deia jaso dogu, besteakaz bat egin eta orain alditik etorkizuna eraikitzeko, alkartea eratuz, errukia, zaintza, lankidetzak, berotasuna, «bategitearen kultura» landuz, garana eta daukaguna banatuz. Bakartuta eta aldentuta bagagoz, ez dogu alkar ulertuko. Abegi egin, barne hartu, horra hor kurtso nonetako bidean behin eta barriro agertuko jakuzan berbak.

Ondorengo esamoldeaz laburbildu daiteke gaurko mezua: "hodei eta haize, euririkan ez; solas eta ele, obrarikan ez". Azkenean, hitzak eta egintzak lotura joatea da garrantzitsua: «Maitasuna, hitzetan baino gehiago egintzetan jarri behar da», inoan Loiolako San Inaziok. Gure sinismenek eta egunero bizi dogunak bat etorri behar dabe. Zelan lortu hori, domekero Eukaristian jasoten dogun indar barik?

Jesús quiere hacerles ver otra perspectiva al preguntarles no cuál de los dos hijos había obrado bien según las convenciones sociales, sino quién hizo lo que quería el padre. Con esto les está diciendo que lo que importa no son las apariencias, sino la actitud interior: para honrar a Dios no solo hay que cumplir unos ritos externos, sino que también hay que cumplir su voluntad.

Lo que Jesús viene a decirnos hoy es que el propósito de convertirse, aunque sea reiterado, no equivale a la conversión. No basta decir "sí, voy", sino que hay que ir. Dios siempre deja espacio para que el "sí" de la boca se haga también "sí" de las obras. Y también deja espacio para que el "no" de la boca se haga "sí" de la conversión. Para ser cristiano no basta decir sí y afirmar la fe, sino que hace falta ser consecuente con esa afirmación, ser responsables de nuestras palabras y acciones, seguir a Cristo en lo fácil y difícil.

Deseamos que nuestra vida de cada día esté llena de valores evangélicos, esté llena de eso que Pablo nos pedía en la segunda lectura: «no os encerréis en vuestros intereses, sino buscad todos el interés de los demás». Si nos fijamos en el cartel de comienzo de curso veremos personas distintas, como el rosetón, uno y formado por distintos colores. Personas que echan una mano al hombro del otro. Nadie está en soledad, encerrado. Somos siempre en relación con otras personas. Recibimos una invitación a salir al encuentro de otras personas para construir futuro desde el presente, tejiendo comunidad, compasión, cuidado, cooperación, calidez, «cultura del encuentro», compartiendo lo que somos y tenemos. No podemos entendernos como seres aislados y desvinculados. Acoger, incluir, son palabras que resuenan en esta celebración como indicadores para el camino de este curso.

Si tuviéramos que resumir el mensaje de hoy sería este: "obras son amores y no buenas razones". Al final, lo que manda es la coherencia de las obras: «El amor se debe poner más en las obras que en las palabras», decía san Ignacio de Loyola. Coherencia entre lo que decimos creer y lo que vivimos cada día. ¿Cómo podríamos hacerlo sin la fuerza que recibimos en la eucaristía de cada domingo?

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Jainkoaren familia izanda eta fedea suspertuta, egin daigun otoitz gure alkarte eta parrokiak etxeko Eleiza izan daitezcan benetan eta euretan Jainkoaren maitasuna bizi eta agertzera emon daiten.

- Eleizaren alde. Frantzisko Aita Santuaren deia gogoan izan eta "abian dan Eleiza" izan daiten, alkarte abegitsu eta barneratzaileak sustatuz eta etxe izanik bidegabekeria, indarkeria edo arriskutik ihesi guregana datozenentzat. Eskatu deiogun Jaunari.
- Agintarien alde. Gizarte maitasuna hartu daiela gaurko munduaren arazoei aurre egiteko eta barruko egitura, gizarte erakunde eta legeantolamenduak sakon aldatzeko. Eskatu deiogun Jaunari.
- Caritasen alde. Kurtso hasierako kanpaina hau bultzada izan daigula pertsonak, eta batez be pobreenak, txikiak eta babes gutxi dabenak gure begirada eta ekintzaren erdian jarteko. Eskatu deiogun Jaunari.
- Gure Eleizbarrutiko kristau alkarten eta bertako kideon alde. Pertsonak begirada eta keinu atsegin eta adeitsu entzun eta hartu daiguzan. Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Jauna, zure Eleizaren erregua. Zeuregan jarri dau honek konfiantza osoa eta zeure esku izan gura dau egia, zuzentasun, bake eta maitasunezko zure Erreinua hemen lurrean gauzatzeko. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRU-BATZEA EGIN AURRETIK

Eukaristia ospatzea, Jesus Berbiztuaren Biziaren eukaristia-otorduan parte hartzea da, kontsolamendu, adore, salaketa eta itxaropenezko zeinu izanik gizarte apurto eta zaurituan. Gaur batu daiten dirua Eleizbarrutiko Caritasen eta alkarte honen beharrezararako izango da. Diru-laguntza horri esker, garatu daitezcan askotariko ekintzak aurrera atarako dira. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

ORACIÓN UNIVERSAL

Como familia de Dios y animados por la fe, oremos para que nuestras comunidades y parroquias sean auténticas Iglesias domésticas donde se viva y se testimonie el amor de Dios.

- Por la Iglesia, para que recuerde la llamada del Papa Francisco a ser una "Iglesia en salida" que nos insta a ser comunidades acogedoras e inclusivas, comunidades que acojan, escuchen, protejan e integren a las personas que se acercan, comunidades especialmente sensibles a quienes han venido de otros lugares buscando un proyecto de vida mejor. Roguemos al Señor.
- Por los gobernantes, para que descubran en el amor social la fuerza capaz de suscitar vías nuevas para afrontar los problemas del mundo de hoy y para renovar profundamente desde su interior las estructuras, organizaciones sociales y ordenamientos jurídicos. Roguemos al Señor.
- Por Cáritas, para que, al celebrar esta campaña de inicio de curso, nos impulse a dar testimonio de nuestra fe y a poner en el centro de nuestra mirada y de nuestra acción el amor por las personas, en especial, las más pobres, las más pequeñas y desprotegidas. Roguemos al Señor.
- Por las comunidades cristianas de nuestra Diócesis y quienes las formamos, para que, durante este curso, no nos falte la amabilidad en nuestra mirada y en nuestros gestos, en la forma de escuchar y acoger a las demás personas. Roguemos al Señor.

Escucha, Señor, la plegaria de tu Iglesia, que pone su confianza en Ti y presta sus manos para llevar adelante tu sueño de un Reino de verdad, de justicia, de paz y de amor. Por Jesucristo, nuestro Señor.

MONICIÓN A LA COLECTA

Celebrar la eucaristía es una invitación a compartir el banquete de la Vida de Jesús Resucitado siendo signo de consuelo, de aliento, de denuncia y de esperanza en medio de una sociedad rota y herida. La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana y a las necesidades de esta comunidad. Apoyo económico que permite el sostenimiento de las diferentes acciones desarrolladas. Gracias a todos por vuestra generosidad.

JAUNARTZE ONDORENGO ISILUNEAN

Ezinbestekoak dira aldaketak alkarte abegitsu eta barneratzaile izateko.

- **Bizimoduz aldatu.** Hurkotasuna eta prestasuna landu. Loturak ezarri beste pertsona eta talde batzukaz, ausartu emotera, baina baita eskatzera be, alkarregazko mendekotasunak senidetasuna sortzen dau-eta.
- **Begiradaz aldatu.** Samariar onak begiratzen dauan lez begiratu. Ezagutzeak eta izena jarreak bihozberatasuna eragiten dau eta errazago da zure bidean aurkitzen dozuna entzutea, artatzea eta sendatzea.
- **Denpora aldatu.** Benetan bizi bihotza maitasunari zabalik dozula. Eskertu, bedeinkatu, izadiaz gozatu eta zure bizitza gorespen bihurtu; poztasuna zabaldu, lagun egin atsekabe eta tristuran, lagun hurko egin. Orain aldia besteen alde emoteko astiaz beteta dago.
- **Ez aurrera egin gelditu barik.** Jesusen atzetik jarraitzeak norbaiten alde jarrea dakar eta eginahalak egitea gizon eta emakume guztiek duintasuna eta zuzentasuna jadetsi daien. Zentzunez bizi eta zure bizitza pertsonala eta beste batzukaz hartzen dozuzan erabakiak bat etorri daitezala. 'Gu' eraginkorrak eragiten ditu aldaketak.


BEDEINKAPENA ETA AGURRA

Jauna zuekin.

Bedeinkatu, Aita, hemen batuta dagoan parrokia alkarte / Pastoral Barruti / Alkarte <...> hau, gure Bizkaiko Eleizan pozez eta itxaropenez ekin deiogun pastoral kurtso barriari, Jesukristoren Eleiza osoagaz alkartasunean biziz.

Eta bedeinkatu zaiezala Jainkoak...

Zoaze Jaunaren bakean!



MEDITACIÓN DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Ser comunidades acogedoras e inclusivas nos pide hacer algunos cambios.

- **Cambia tu estilo de vida.** Cultiva la cercanía y la disponibilidad. Revincúlate con otras personas y grupos, atrévete a dar pero también a pedir, porque esa interdependencia crea fraternidad.
- **Cambia tu mirada.** Acerca tu mirada a la realidad como hace el buen samaritano. Conocer y poner nombre abre el corazón a la compasión para poder escuchar, atender y sanar a quien se encuentra en tu camino.
- **Cambia tu tiempo.** Vive de verdad con el corazón abierto al amor. Agradece, bendice, disfruta de la naturaleza y convierte tu vida en alabanza; comparte tu alegría, acompaña el dolor y la tristeza, hazte una persona cercana. El presente está lleno de tiempo para compartir.
- **No pases de largo.** Seguir a Jesús implica tomar partido y hacer todo lo posible para que la dignidad y la justicia sean posibles para todas las personas. Vive consciente de todo y busca la coherencia en tu vida personal y en las decisiones que tomas con otras personas. Los cambios se gestan desde un nosotros compartido.

BENDICIÓN Y DESPEDIDA

El Señor esté con vosotros.

Bendice, Padre, a esta comunidad parroquial / Unidad Pastoral / Comunidad <.....> aquí congregada, para que, en nuestra Iglesia de Bizkaia, nos dispongamos con una ilusión renovada a iniciar este curso pastoral, viviendo en comunión con la Iglesia entera de Jesucristo.

Y la bendición de Dios...

Podéis ir en paz.